



KOMIKIA eta NARRAZIO LABURRA

OINARRIAK



Parte hartzaileak: Uharten bizi edo ikasten duten haurrak.

Sailak: narrazio laburra eta komikia.

Kategoriak eta sariak:

	HIZKUNTZA	KATEGORIA	SARIA
NARRAZIO LABURRA	Euskara	LH 3 eta LH 4	Liburu sorta
	Euskara	LH 5 eta LH 6	Liburu sorta
	Gaztelania	LH 3 eta LH 4	Liburu sorta
	Gaztelania	LH 5 eta LH 6	Liburu sorta
KOMIKIA	Euskara	LH 3 eta LH 4	Liburu sorta
	Euskara	LH 5 eta LH 6	Liburu sorta
	Gaztelania	LH 3 eta LH 4	Liburu sorta
	Gaztelania	LH 5 eta LH 6	Liburu sorta

Lanak aurkezteko epea eta lekua: apirilaren 23a, ostirala, LIBURUTEGIAN.

Lanak aurkezteko modua: lan guztiak goituzen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta jaioteguna) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: egilearen izengoitia, saila (narrazio laburra edo komikia) eta categoria. Lanak banaka aurkeztu behar dira. ✱

Baldintzak:


- a) Gaia librea izango da.
- b) Lanak originalak, aurrez saritu gabeak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.
- c) Lanak bakarkakoak izanen dira.
- d) Narrazio laburrek ondoko luzera izanen dute: orrialde bat, gutxienez, eta 3 orrialde, gehienez ere. Ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, Arial letra mota erabiliko da eta 12 puntuko hizki-tamaina.
- e) Komikiak A-3 taminan aurkeztuko dira. Txuri-beltzean edo koloretan izan daiteke eta margo mota eta teknika libreak izango dira.

Epaimahaia: epaimahaia lehiaketaren sailekin erlazioaturiko kidez osatua egonen da eta udal zerbitzuetako teknikariek izendatuko dituzte. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango lirateke.

Sari banaketa: sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da. Egun eta ordua parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta kultura eta gazteria agendaren bitartez ere iragarriko da. Datu Pertsonalak babesteko 2016/679 Erregelamendua betetzeko, adingabeen kasuan, parte-hartzaileen gurasoek edo tutoreek onartu egiten dute parte-hartzaileei argazkia ateratzea sari banaketa ekitaldian Uharteko udaleko euskarri komunikatiboetan zein hedabideetan zabaltzeko.

Lanen argitalpena eta erakusketa: Uharteko Udalak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izanen du, inprimatuta zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz. Lanak erakusteko eskubidea ere izanen du.

Jabetza intelektual: lehiaketarako lanen aurkezpenarekin pertsona parte-hartzaileek erreproduzio eta komunikazio publikorako eskubidea uzten dizkiote Uharteko Udalarari. Uharteko Udalak egilearen izena aipatu behar du beti. Parte-hartzaileak lanaren egilea bera dela bermatzen du hortaz, legearen ez betetzeagatik ager daitekeen edozein eztabaida, bereziki jabetza intelektual kontuetan, parte-hartzailearen erantzukizuna izango da.



✱

IZEN-ABIZENAK	IKASTETXEA
TELEFONOA	MAILA
E-POSTA	JAIOTEGUNA
HELBIDEA	